

# Non dira «demokratak»

**I**RAILaren 20an, orain dela hiru aste, *Musa Anter* Kurdiar abertzalea, Turkia-ko «barbouze»ek hil zuten. Hirurogei-ta-hamalau urte zituen; ez baita txarranpinaren adina... eta tiroka garbitu zuten, Diyarbakir-en; hauda, Turkia-ko Kurdistan-go hiriburuan.

«Ozgur Gundem» Kurdiar aldizkarian idazten zuen. Eta hau bekatu larria da Turkian; «Kurdiarrik bat ere» ez baitago han... Ekialdeko Turkian «mendialdeko Turkiarrik» daude; eta ez besterik. Bertan mintzatua den «Kurmandchi» kurdiera-dialektoa (nazio-hizkuntzaren adar nagusia), «iraniera usteldua» besterik ez da. Hona hemen «Türkçe Sözlük» hiztegi turkiarrik dioena (1966): «Kurdes: nom d'une communauté, constituée en majeure partie de Turcs qui ont *changé de langue*; communauté *parlant un perse corrompu*... Horra hor ikuspuntu «ofiziala»...

Hots, Kurdiarrik gehienak (14,5 miloi) *Turkian* bizi dira. Eta hori ukatzea edo izkutatzea, gero eta zailago zaie Ankara-ko gobernuari. «Hezbollah» turkiar politzia izkutuak, 9 kasetari abertzale hil ditu aurtengo lehenengo hilabeteetan: batzu «Ozgur Gundem» aldizkariakoak; gainerakoak «Yeni Uike» astekarikoak.

## Txillardegi

Borroka harmatua daraman PKK.aren «laguntzaile» izatea leporatzen zaie. Eta beste 140 Kurdiar «politikok» bezala, bizieraz ordaindu dute. Europako demokraziek, ordea, entzungor egiten dute.

Nahiz-eta Kurdiarren zoritxarra oso handia eta nabarmena izan. Koweit-eko gerratea amaitzean, jakina



## Zer eskubide dute gure printzipe faltzuek ?

denez, Saddam Hussein-ek Kurdistan-era jo zuen; eta Irak-eko Kurdiarren kontrako erasoak azkartu zen. «Aliatuen» baimenaz, itxurako urrats batzu eman zituen; baina Irak-eko Kurdiarrek deusik ez sinetsirik, hamarnamilaka abiatu ziren joan den neguan, elurretan zeuden mendikate gaitzen gaitetik. *Genozidioa*, hitz batez, bi aldetatik zetorkien: Turkia-renetik eta Irak-enetik. Eta hauxe da gogorrena: zapal dutako herrien artean,

Kurdistan baita denetan handiena: 400.000 km<sup>2</sup>, 30 miloi biztanle. 5 miloi Irak-en, 7 miloi Iran-en; 1,5 miloi Siria-n; 0,5 miloi Armenia-n... Eta abar. Hizkuntzaz iraniarren anaiak, ete erlijioz islamdarrak, petrolio-eskualde aberatsen jabe, «desegoki» datoz munduko «ordenu berrian». Hil bitez, beraz. Eta betidaniko «demokratak», isilik. Noski! Non da Kurdistan? Urruti. Lasai! Osetiarrek (Kaukasoa), Tadjik-tarrek (Asia betean), Balutxiarrek, zorte hobea izan dute: inork ez du beren izatea ukatzen.

Errotik desjabeturik, Kurdiarrek erditurik daude beren buruarekin: Turkia-koek Mendebaldearen eragina dute, alfabetoa gurea dutelarik; Irak-ekoek, Iran-koak, Siria-koek, Islam dela-ta, arabiar alfabetoa darabilte, Kaukaso-koek, azkenik, idazkera zirilikoa. *Politikoki* eta *ekonomikoki* batasuna galduta, *sinbolikoki* ere galduta dute; elkarren grafia bera ezin ulerturik! Turkiak eta Irakek batera Kurdistan lotsagabeki kolpatzean, mendebaltar «demokrazia»ren gezurra gailentzen da. Zer eskubide dute gure «printzipe» faltzuek, Kurdistan-i, Eslobakia-ri edo Euskal Herriari *Burujobatza eta Batasuna* ukatzeko? Bat ere ez, noski!

## Festibala jin bezain laster joan zaigu...

**H**ITZA Pitz 92, ipuin eta kondalarien festibala jin bezain laster joan zaigu. Kondalari paregabeak, publiko ezin hobea eta aroa alde genuela, Bardoze,



Koldo Amestoy

Heleta, Donamartiri eta Hazpamen, hainbeste ipuin eta ixtorio entzunik, burua freskatua eta goxatua itzuli ginen etxera. Eskolako orduetan, bi milako bat haureskualdeko


herri horietara hurbildurik, ipuinez gozatuak, loriatuak etxeratu ziren. Ipuina lantzeko lau ikastaldietan, 70 bat ikasle: kondalari, bibliotekari, irakasle, animatzaile eta beste egon ziren. Hazpamen, «Ipuinen ferriari», 120 bat lagun elkartu ginen eta 70 bat «Ipuinen bidean» eskualde guzian ibili. Gauetako espektakuloetan, gazte eta jende nagusien aldi zen, Bardozen 100 bat, Donamartiriko harpeetan 200 bat, Heletan 120 bat eta Hazpamen, bi gauetz, 700

bat jende etorri zen. Horieta frango, inguruko herrietatik, kostaldetik, Paue, Bordale eta Tolosatik ere, baina ipuinaldia gertatzen zen herritik arras jende gutti. Zergatik? Politezia iduriz, herritarrek, ikusgarriko bererokia, kanpokoeri utzi nahi balote bezala!... Edo gogo goxatzekoak beti besteentzat balira bezala!... Edo... Nork daki? Alta festibal hau gurea da, nahiz eta, ez dena euskaraz izan, Euskal Herri barne hontan, guretzat ere egina da, eta parte gure diruari esker eraikia, beraz... Eta dirua aipatzen baitugu, horra nola moldatzen garen Hitza Pitz festibala diruztatzeko:

- diru publikoa: % 40
- diru pribatua: % 24 (enpresa handi eta eskualdeko lantegiak eta beste)
- ikusgarrietan sartzeetako dirua: % 36.

Aurtengo hortan bego, baina zure buruari hitz eman behar zeniok, heldu den urtean, itzuliño bat eginen duzula, kuriositatez, hainbeste aipatzen den festibal hori zer den jakin dezan. Hitza Pitz osoki jaten ez baduzu ere, poxiño bat bederen jasta dezazun, entseatzeko bezala... Hitza Pitz 93 arte! **Hitza Pitz**

**XIRRIXTA,**  
le mensuel des enfants  
basques, (pour les 4-8  
ans) sort son premier  
numéro. Jeux d'éveil,  
contes, BD, recettes de  
cuisine, il fera goûter à  
votre enfant le plaisir  
de la lecture en  
euskara... Pour  
s'abonner (un an :  
220F) écrire à Euskal  
kultur erakundea, Lota,  
Boîte postale 6, 64480  
Iltzaritze



## Sur votre agenda

- **Urriaren 21ean, 16<sup>1/2</sup>etan, BAIONAN** (Bureau de garnison) elgarretaratze sinbolikoa, bakotxa bere musikarekin, euskal insumisioaren alde, Patxak antolatua.
- **du mercredi 21 au samedi 24 octobre BIARRITZEN**, «écrans sonores - rencontres internationales des musiques à l'image» avec projections, débats, ateliers pédagogiques.
- **jeudi 22 octobre, 20 h 30, DONAPALEUN** (Franciscains) «l'Eglise d'Amérique latine» avec le concours de P. Olhagaray et S. Martinon.
- **Urriaren 24an, 21etan, HENDAIA**n (portuan) «rock gaua», skunk, Burlesk, Su ta gar eta Tturruttak taldekin, ikastolaren alde.
- **samedi 24 et lundi 26 octobre MAULEN** dans le cadre «Larrazken harroa-8<sup>èmes</sup> semaines culturelles», journée du patrimoine (samedi) avec rencontre des écrivains basques et projection du film basque «Ehun metro» (lundi), organisées par Sü azia, Ikerzaleak, Aitzindariak et Gaü eskolak.
- **Samedi 24 octobre, 17 h, PARIS**En (Euskal etxea) conférence sur les ikastola avec Jean-Louis Maitea puis fête au profit de Seaska, organisées par Lokarria et Sustraiak-Erroak.